



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko ekainaren 8a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da BAME lanpostuak hautatzeko sistema alda dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da areagotu ditzan hizkuntzak jakitearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak eta Iruñeko zein Tuterako hizkuntza eskolak balioan jartzeko publizitate kanpainak. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).

- Galdera, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberitze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2022ko martxoaren 4ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2022ko ekainaren 1ean eta 7an egindako bileran onetsia

**Foru lege proposamena,
zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006
Foru Legea, abenduaren 14koa,
Jokoari buruzkoa**

HITZAURREA

I

Joko-jarduerak arautzeko eskumena Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean dago banatuta. Batetik, Estatuaren eskumena eskusiboa da estatu-eremu batean egiten denean jarduera, presentziala denean nahiz bide elektronikoa, informatikoa, telematikoa eta interaktiboak erabiliz egiten denean. Bestetik, autonomia erkidegoek gai honen gaineko eskumenak har ditzakete jokia beren lurralde-esparru zorrotzera mugaturik egiten denean, zein ere den joko-egikera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion kasino, joko eta apustuen arloko eskumen eskusiboa, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuak salbuetsita. Xedapen hori mamitu zen urtarrilaren 24ko 226/1986 Errege Dekretuan, zeinaren bidez eskualdatu baitziren aipatu eskumenak. Arau horren indarrez, Nafarroari dagokio baimena ematea, besteak beste, kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustu-denden instalazio, irekitze eta funtzionamendurako, bai eta jolas-makinak nahiz zorizko jokoetarako makinak ustiatzeko ere, Foru Komunitatearen esparruan.

Nabarmendu beharrekoa da foru lege honetan ez dela jasotzen loterien estatu-erreserbako joko-ei, lokalei edo gailuei dagokiena, horiek Jokoaren Araubideari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean araututa egonik. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateak ez du gai horretan eskumenik.

II

Nafarroaren eskumena erabiliz, garai batean Nafarroako Jokoari eta Apustuei buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak –jada indargabetuta dago– eta gaur egun Nafarroako Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak joko-jarduera arautu dute hura enpresa-jardueratzat harturik, eta, aldi berean, gizarteko sektore kalteberenen eskubideak babesten saiatu dira, hau da, joko-jardueraren kontsumo gehiegizkoa eta itxuragabea dela-eta beren osasunean edo ekonomian kalte gehien jaso dezaketen sektoreen eskubideak.

Foru legedia garatzeko, Nafarroako Gobernuak arian-arian tankeratu du joko-sektorea osatzen duten jardueretako bakoitzaren berariazko araubidea, honako arau hauen bitartez:

– 73/2010 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Bingen Erregelamendua onesten duena.

– Abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretua, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

– 94/1991 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Rifa, Tonbola eta Zorizko Konbinazioen Arautegia onesten duena.

– 181/1990 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, Joko Makinetarako Arautegia onesten duena.

– 74/1989 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Joko Makinak instalatzeko Baimenak arautzen dituen.

Kontuan hartu behar da zerrenda horretan ez dela agertzen 16/2011 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Apustuen Erregelamendua onesten duena, arau hori baliogabetu egin baitzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2014ko urtarrilaren 23ko epaiaren bidez (Auzitegi Gorenak berretsia, 833/2014 zenbakiko errekursoan emandako 2016ko martxoaren 8ko epaiaren bidez), halako moldez non gaur den egunean bat bera baita joko-aretoak arautzen dituen araua eta apustu-denden gainekoa.

Halaber, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 23ko 98/2017 Foru Aginduaren bitartez, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorreko Kontrol, Ikuskarpen eta Zehapenerako I. Plan Orokorra onetsi zen. Plan horren 1. ardatzak (Jokoaren alorra) badu adingabeekin eta beste kolektibo kaltebera batzuekin zerikusia duen jarduketa lerro bat, helburu nagusi duena eragozteko haiek jokoetan parte har dezaten eta ebaluatzea zenbateraino diren egokiak protokoloak, jarduketa arauak eta enpresek joko-lokaletarako sarbidea eta jokia bera kontrolatzeko erabiltzen dituzten aplikazioak edo gailu teknologikoak.

Esan behar da, halaber, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 18/2015 Foru Legeak behar diren murrizketa guztiak ezarri zituela jokoratze-modalitate guztietan. Horrela joko arduratsua bultzatzen da arlo horretan ere, aurrez aurreko jokoa-ekin egiten zen bezala.

Estatu-esparruan, azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua onetsi da, joko-jardueren gaineko komunikazio komertzialei buruzkoa.

Errege dekretu hori Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legea osatzeko sortu zen. Izan ere, legearen xede nagusiak dira adikzio-jokabideei aurrea hartzea eta adingabeak zein

beste talde kaltebera batzuk babestea, eta dekretuarenak, batetik, joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei baldintzak ezartzea publizitate, babesletza nahiz sustapen jarduerak edo beren jarduerari buruzko bestelako komunikazio komertzialak garatu ahal izateko; eta, bestetik, joko arduratsu edo segurua sustatzeko eta kontsumitzaileak babesteko politika jakin batzuk garatzeko oinarri izan behar duten baldintzak ezartzea joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei.

Horrek 13/2011 Legearen aplikazio-eremuko joko-jarduerak garatzen dituzten entitateei eragiten die –tartean direla loteria-jokoak merkaturatzeko izendatutako operadoreak–, eta edozein bitarteko edo euskarri erabiliz operadoreen joko-jarduerari buruzko komunikazio komertzialak zabaltzen dituzten pertsona fisiko, juridiko, pribatu edo publikoei, esaterako komunikazio elektronikoko edo ikus-entzunezkoaren zerbitzuen emaleei, informazioaren gizarteko zerbitzuen emaleei (afiliatuak, web-orriak eta sare sozialak barne) eta beste edozein komunikabideri. Halaber, aplikatzea litzateke komunikazio komertzialak prestatu, igorri edo hedatzearen tarteko faseetan parte hartzen duten entitateei, hala nola publizitate sareei, publizitate agentzietan edo bitartekaritza zerbitzuen emaleei. Komunikazio komertzialei dago kienez, salbuetsi egiten dira zozketen emanaldiak eta emaitzen hedapena. Baita operadoreek joko-jarduerak eskaintzeko erabiltzen dituzten web.es orri edo aplikazio mugikorretan bakarrik iragartzen diren joko-produktuak ere.

III

Nafarroako Gobernuak 2019ko urrian ekin zien Jokoari buruzko Foru Legea aldatzeko atariko lanei, funtsezko hiru arlo nagusi jorrazuz: ludopatiaren prebentzioa, adingabeen eta kolektibo babegabeen babesa, eta joko arduratsuen sustapena. Aldi berean, Nafarroako Parlamentuak lantalde bat eratu zuen Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko, eta horren txostena onetsi zen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko erabakiaren bidez. Bi erakundeen lanetatik atera dira lege-testu honetan bildutako proposamenak.

Kezka sozial eta politikoaren iturri izan da kirol-apustuen eredu guztiek oso urte gutxitan izan duten hazkundera, bai eta horrelako jokoeekin zerikusia duten ludopatiaren gorakada ere, batez ere gazteek pairatzen dutena. Osasun publikoko arazotzat hartu izan da hori, eta, beraz, beharrezkoa da foru legean jasotako araudi indarduna egokitzea.

Alarma jo dute familiek, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalak, prebentzioaren arloan eta jokoarekin –batez ere kirol-apustuekin– lotura patologikoa duten pertsonen laguntzen jarraitzen duten elkarteek, eta maila guztietako administrazio publikoetan nahiz entitate pribatueta egindako azterlanek.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, kirol-apustuak nabarmen hazi dira. Establezimendu publikoetan jarrita dauden kirol-apustueta makinak nagusitzen ari zaizkie B motako makinei, halako moldez non bihurtzen ari baitira nafarrek diru gehien gastatzen duten joko-modalitateak.

Datu horiek guztiek erakusten dute kirol-apustuak izanen direla etorkizun ez oso urrunean dirurik gehien erakarriko duen joko mota, orain arte izandako gorakadak bere bilakabideari eutsiz gero. Igoera horren berri ematen du Nafarroako apustu-makinen parkeak: 2018an 1.138 izateraino iritsi ziren, urtebete lehenago 981 izatetik. Aipatu kopuruak ia bikoiztu egiten du duela lau urte instalatuta zeuden 675 makinen kopurua. Kirol-apustuak hedatzen ziren bitartean, txanpon-makinen parkeak ia berdin jarraitu zuen 2019. urtean Nafarroan, aurreko ekitaldian baino 20 unitate gutxiagorekin eta guztira 1.945 makinarekin. Lau urte lehenago, berriz, 1.986 zeuden Foru Komunitatean.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak kirol-apustuen arloan dituen eskumenak erabili nahi dira araudi berri honetan, behar diren mugak ezarri interes orokorra babesteko eta osasun publiko arazoei aurrea hartu eta itzuri egiteko.

Adikzioaren arriskuak arintzeko neurriak ezarri nahi dira, irisgarritasuna gutxitu, esposizioa murriztu, babes faktoreei eragin hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezarri.

Horregatik guztiagatik, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen da, lege-aldaketak eginez lokal eta makinen araudian, irekitzeko eta ixteko ordutegietan, kontrolean, publizitatean eta babesletzan, helburu izanik adikzioaren arriskuak arintzea, irisgarritasuna gutxitzea, babes faktoreei eragitea hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezartzea.

Arauaren aldaketak tresna eraginkorra izan behar du jokoaren aurrean sektore kalteberenak babesteko, batez ere adingabeak, gazteak eta nerabeak, horiek zaintza edo babes berezia behar baitute. Horregatik, Administrazioaren esku-har-

tzeak xede izan behar du arriskua duten kolektibok defendatzea merkatu irekiko eta lehia libreko ekonomiaren testuinguruan, arreta berezia jarriz haur eta gazteei, josteta-jarduera batek ez ditzan joko patologikora eraman.

Artikulu bakarra. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea.

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 1. artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Halaber, foru lege honek behar diren mekanismoak ezartzen ditu, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan mota guztietako kirol-apustuen publizitatea debekatuko dutenak, bai eta apustuekin zerikusia duen edozein negozioren publizitatea ere, kirolarien jantzetan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan. Debeku hori kirol kategoria guztietan ezarriko da, eta hura aplikatu ahal izateko baldintzak izanen dira dena delako entitateak egoitza soziala Nafarroan izatea eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakariaren eremua tokikoa, probintziakoa edo autonomia erkidegokoa izatea”.

Bi. 2. artikulua a) letra aldatzen da. Hona testua:

“a) Hirugarrenei jasan ditzaketen kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei edo laguntzadun desgaituei”.

Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 2. bis artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Horretarako, Hezkuntza Departamentuak prebentzioaren arloko jarduketara programa berriak ezarriko ditu ikastetxeetan ezar daitezkeen, eta lankidetzara hitzarmenak sinatzen ahalko dituen jokoarekin zerikusia duten patologiak saihestea xede duten entitate eta elkarteekin”.

Lau. 2. bis artikulua 2. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“2. Joko-antolatzaileek, beren jardunean aritzean, arreta berezia emanen diete arrisku-taldeeiei, eta joko-jarrera neurritsu eta arduratsuak sustatuko dituzte, egoki diren informazio-neurrien bitartez, zeinetan zehatz adieraziko baita debeku dutela parte hartzea adingabeek eta zaurgarriak diren bestelako kolektibok, hala nola laguntzadun desgaituek, kasua bada”.

Bost. 2. ter artikulua berri bat gehitzen da. Honela geldituko litzateke idatzita:

“2. ter artikulua. Joko- eta apustu-enpresek ezarri beharrekoak diren joko problematiko eta patologikoen prebentzioarako neurriak.

1. Joko-enpresek eta joko- eta apustu-baime-
nen titular direnek neurri-plan bat prestatu behar
dute jokoak pertsonengan sor litzakeen balizko
efektu kaltegarriak samurtzeko, eta jokoen eta
apustuen jarduera gidatzen duten printzipioak jaso
behar dituzte.

2. Kasu guztietan, Nafarroako Foru Komunita-
tearen lurralde-esparruan soilik jarduten duten
joko- eta apustu-enpresek, bai eta joko-atari edo -
webguneen titularrek ere, honako ekintzez ardura-
tu behar dute:

a) Arrisku-taldeei behar bezalako arreta eman.

b) Beharrezkoa den informazioa eskaini, parte-
hartzailleek modua izan dezaten hautaketa ardura-
tsu bat egiteko. Halaber sustatuko da joko-jardue-
ra eta horrekiko jarrera neurritsua eta arduratsua
izan daitezela, ez konpultsiboak.

c) Jakinarazi parte hartzeko eta jokoratzeko
zer debeku dauzkaten adingabeek eta debekudu-
nek, hain zuzen Joko-antolamenduko Zuzendarit-
za Nagusikoa den Jokoratzeko Debekuen Erregis-
troan sartuta daudenean, eta debeku horiek
bermatzeko beharrezkoak diren kontrolbideak
ezartzea. Horretarako, afixa bat beharko dute
paratuta eduki ikusteko moduko toki batean, loka-
laren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten
duena adingabeek eta debekudunen erregistroan
inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela
apustuetan parte hartzea.

d) Beren langileei prestakuntza-ikastaroak
eman, joko arduratsuen jardunarekin eta joko
problematiko eta patologikoaren prebentzioarekin
zerikusia dutenak.

e) Ikusteko moduko toki batean adierazi nora
joa daitekeen ludopatia-problema bat edukiz gero.

3. Joko-jarduerak erantzukizun sozial korpora-
tiboaren oharmenez egin behar dituzte joko- eta
apustu-enpresek, enpresa-jardun ireki eta garde-
nen bitartez, oinarrituak balio etikoetan eta enple-
gatuekiko, parte-hartzaileekiko, gizarte osoarekiko
eta ingurumenarekiko begirunean.

4. Joko-enpresek parte-hartzaileei aukera
eskaini behar diete beren gordailuei beren boron-
datez mugak ezartzeko, orokortasunez ezarritako
zenbatekoak baino gutxiagokoak.

5. Jokalariei edo erabiltzaileei buruzko trukean
gauzatu litezkeen joko problematikoaren eta pato-
logikoaren prebentziorako ekintzek errespetatu
egin beharko dute datu pertsonalak babestearen
eta eskubide digitalak bermatzearen alorreko
arabidea. Erregelamenduz antolatuko dira trukea
egiteko bitartekoak eta bideak, bai eta jokalariek

modua izan dezaten dagozkien eskubideak
egikaritzeko, araubide horren ildotik.

6. Joko-enpresek ez dute zilegi izanen jokala-
riei mailegurik ematea, ez eta beste edozein kredi-
tu-motarik ere, ez eta haiei hobaririk, doako parti-
darik edo diru bihurtzeko moduko elementurik
ematea edo kredituak edo maileguak lortzeko pro-
dutu finantzarioak iragartzetik ere”.

Sei. 10. artikulua aldatzen da. Honela geratuko
litzateke idatzita:

“10. artikulua Jokoen publizitatea.

1. Jokoari edo apustuei buruz eta jokatzeko
edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizit-
atea egiteko eta jarduera horiei babesa emateko,
aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunita-
teko Administrazioan eskumena duen departa-
mentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpene-
an egin nahi den kanpainaren edo jardueraren
datuak adierazi beharko dira, hasi baino hilabete
bat lehenago gutxienez.

Publizitateak eta sustapenak betiere errespetat-
tu beharko dute Haur eta nerabeei arreta eta
babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta
berdintasuna sustatzeko Foru Legean xedatzen
dena, bai eta hori garatzeko araudian ezarritakoa
ere.

Administrazio eskudunak egiaztatu beharko du
ezen, lege ezarritako printzipio, betebeharrak eta
debekuak betetzeaz gainera, sustatzen direla
joko-jarrera neurritsu, arduratsu eta ez-kompul-
tsiboak, eta, betiere, mezuen bidez ohartarazten
dela adingabeek joko debekatua dutela.

Kontuan hartu beharko dira, besteak beste,
publizitatea emititzeko ordu-tarteak edo hedabide-
ak, pertsona ospetsuak agertzearen debekua edo
murriztapenak, eta babesletza- eta sustapen-jar-
dueren erregulazioan joko-jarrera neurritsu eta ez-
kompulstiboak sustatu beharra.

2. Ez da onartuko honelako komunikazio
komertzialik:

1. Joko-jardun burugabe, konpultsibo, i-
txuragabe, neurrigabe, adikziozko edo patologiko-
an aritzeko pizgarri direnak.

2. Jokatzeko ez duten pertsonak arbuia eta
jokatzeko dutenei gailentasun sozial halako bat
ematen dietenak.

3. Joko-jarduerak lotzen dituztenak arrakasta
pertsonal, familiar, sozial edo profesionala adi-
tzera ematen duten ideia edo portaerekin.

4. Joko bateko parte-hartzaileentzako maile-guen edo beste edonolako kreditu-modaliteren eskaintzak egiten dituztenak.

5. Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzakoen, bakardadearen edo depresioaren aldean.

6. Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

3. Beti debeku izanen da:

a) Apustu-enpresak kirol-kluben babesle izatea; bereziki, debeku da haien publizitatea jartzea kirol-jantzietan eta elastikoetan, edo kirol-instalazio eta estadioetan.

b) Apustuen publizitatea jartzea Nafarroan egin eta osorik edo partez dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen den edozein kirol-jardueratan.

c) Publizitatea jartzea zentro hauetatik 300 metrora baino hurbilago dauden euskarrietan: ikastetxeak, kiroldegiak, kultura, josteta edo osasun zentroak, edo joko-adikzioa, osasun mentaleko arazo larriak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako lokalak.

d) Kirol-enpresen publizitatea jartzea administrazio publikoen egoitzetan, 18 urtetik beherakoentzako gune publikoetan, osasun-zentroetan, gizarte-zentroetan, zentro-soziosanitarioetan, ikastetxeetan, zinema-aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal eta instalazioetan.

e) Postaz, telefonoz edo bide telematikoez publizitatea egitea, eta, oro har, publizitatea etxera igortzea.

f) Publizitatea egitea Nafarroako egunkari, aldizkari edo bestelako informazio bideetan eta Nafarroan kokatutako irrati eta telebista zentroetan 05:00etatik hurrengo eguneko 01:00 arte.

4. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jardueraren egitea debekatu edo baldintzatzeko, baldin eta jardueraren beraren edo bere agresibitatearen ondorioz kalte egiten ahal bazaie ordenamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei, edo sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie, hala nola adingabe-ei, edota laguntzadun desgaituei. Horrelako kasuen berri emanen zaio gizarte zerbitzuen eta adingabeentzako babesaren arloan eskumena duen departamentuari.

5. Zaintza-lana eginen da jokoari buruzko publizitatean ez daitezen erabil halako pertsonak

zeinak, beren lanbideagatik, ospe sozialagatik edo beste edozein zertzeladagatik, erreferentetzat har baitaitezke populazio orokorrarentzat eta, batez ere, gazte eta adingabeentzat. Aginduko da jokoa aritzeak ludopatia eragitearen eta aritze hori adingabe-ei debekatuta egotearen ohartarazpena esanbidez jasota utz dadin.

Publizitatean ez da inola ere onartuko osasun arloko profesionalek edo zientzialariek parte hartzerik, ez eta osasunarekin zerikusia duten elkarre, korporazio, fundazio edo erakundeen abalak erabiltzerik ere”.

Zazpi. 14. artikuluari apartatu berri bat erantsen zaio. Hona testua:

“6. Joko eta apustuen establezimenduen arteko gutxienerako distantziak.

Inola ere ezin izanen da baimenik eman berriazko joko-establezimenduak zentro hauetatik 400 metrora baino hurbilago instalatzeko: adingabe-ei irakaskuntza arautuak ematen dizkieten ikastetxe publiko edo pribatuak, jokalaria patologikoen errehabilitaziorako zentro ofizialak, adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzak, osasun, kirol, kultura eta aisia zentroak eta gaztetxeak. Era berean, joko eta apustu-establezimenduen arteko gutxienerako distantzia 400 metrokoa izanen da gutxienez ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako distantzia (ezertan galarazi gabe udalerrri bakoitzak gutxienerako distantzia hori handitzea) beti neurtuko da jabari publikoko bidean oinez egin daitekeen ibilbide laburrenetik.

Udalek gutxienerako distantzia hori baino handiagoa ezarri ahalko dute beren udal-mugartean”.

Zortzi. 18. artikulua 4. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“4. Nafarroako Gobernuak apustu-makinek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu, bai eta, behar izanez gero, toki, lokal edo establezimendu jakinetan apustu-makinak jartzeko baldintzak ere.

Kasu guztietan, tabernetako edo ostalaritzako establezimenduetako apustu-makinatarako irisgarritasun-sistemak halako elementu teknikoak aintzat hartu beharko ditu zeinek modua emanen baitute haietarako irispidea kontrolatzeko, eta foru lege honen erregelamenduzko garapenean xedatutakoaren esanetara egonen da”.

Bederatzi. 23. artikulua 2. apartatuari para-grafo bat eransten zaio. Hona testua:

“Baimenduriko toki, lokal eta establezimenduak tabernetatik eta ostalaritzako establezimenduetatik bereizi beharko dira. Debekatu egiten da aipatu establezimenduetan alkoholdun edarien kontsumoaren publizitatea eta sustapena egitea. Baimendutako tokiek, lokalek eta establezimenduek ez dute zilegi izanen kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioak iragartzerik”.

Hamar. 26. artikulua aldatzen da. Honela gertuko litzateke idatzita:

“26. artikulua Joko-aretoak:

1. Joko-aretoak dira joko-makinak ustiatzen direnoko lokal edo guneak dauzkaten establezimenduak, eta halaber eduki ditzakete beste aukera ludiko baimendu batzuk aurrera eramateko prestaturik daudenak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Nahitaez beharko dute harrera- edo onarpen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen utziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei eta jokari beren kasa uko egin dioten pertsoneri.

b) Errotulu batean jarri beharko dute joko-aretoa dela.

c) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri beharko dute adierazteko debeku dutela jokoetan parte hartzea adingabeek eta Jokoratze Debekuen Erregistroan inskribatutako pertsonen, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

d) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri beharko dute adikzioa sor dezakeela jokoetan gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Ikusteko moduko toki batean kokatu beharko dute, harrera-zerbitzuan, ludopatia-problema bat izanez gero nora jo daitekeen jakinarazten duen oharra”.

Hamaika. 26. bis artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26 bis artikulua. Kirol-apustuen lokalak.

1. Apustu-lokalak dira kirol-apustuen ustiapenerako establezimenduak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Nahitaez beharko dute harrera- edo onarpen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen utziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei eta jokari beren kasa uko egin dioten pertsoneri.

b) Errotulu batean jarri beharko dute apustu-lokalak direla (edo apustu-guneak).

c) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri beharko dute adierazteko debeku dutela apustu- eta parte hartzea adingabeek eta Jokoratze Debekuen Erregistroan inskribatutako pertsonen, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

d) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri beharko dute adikzioa sor dezakeela apustu-jokoetan gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Joko-atarietan argiro adierazi beharko da adingabeek eta Jokoratze Debekuen Erregistroan inskribaturiko pertsonen debeku dutela apustu- eta parte hartzea.

f) Ikusteko moduko toki batean kokatu beharko dute, harrera-zerbitzuan, ludopatia-problema bat izanez gero nora jo daitekeen jakinarazten duen oharra”.

Hamabi. 26. ter artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26. ter artikulua. Apustu-terminalak ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan.

1. Taberna, taberna berezi, kafetegi eta kafe-ikuskizun gisa berariaz baimendutako ostalaritzako establezimenduek apustu-makina osagarri bat bakarrik instalatu ahal dute. Hori gorabehera, baimena ematen ahal da lokal horietan sari programatutako joko-makina bat instalatzeko, B motakoa.

2. Paratzen den apustu-makinak apustu-irispidearen gaineko kontrola bermatzea ahalbidetzen duten elementu teknikoak eduki beharko ditu, foru lege honetako 18.4 artikulua ezarritakoari jarraituz, halako moldean non ekidin egiten baita jokodebekuak dituzten pertsonak edo adingabeak jokoratu ahal izatea.

Joko-partidak amaitu ondoren, eta erabilia izaten ari ez den bitartean, desaktibatuta egonen da, soinuak, ikusizko edo argizko kitzikagarriak ez dariola.

3. Erregelamendu bidez egokitzapen-aldi bat ezarriko da, ostalaritzako establezimenduetan gaur egun instalatuta dauden makinei foru lege honen 18.4 artikuluan ezarritako sarbide-kontrol sistemak jar dakizkien.

4. Makina instalatuta dagoen ostalaritzako establezimenduaren titularraren erantzukizuna da lege ezarritako jokoratze-debekuak betetzea eta horiek establezimenduko langileei betearaztea.

5. Horrelako makinak aipatu ostalaritzako establezimenduetan instalatzerakoan, ezin dira

paratu terraza edo bide publikoetan, ez eta lokalen kanpoaldean ere, ez eta ikastetxe-, unibertsitate-, osasungintza-, gizarte- edo gazteria-erakinen barneko eta kirol-guneetako tabernetan edo kafetegietan”.

Hamahiru. 30. artikulua lehen paragrafoari zerbakia jartzen zaio eta 30. artikuluari apartatu berri bat erantsen zaio. Hona testua:

“2. Joko-aretoetan edo apustu-lokaletan beren lana bezeroak artatuz egiten duten langileek prestakuntza jaso beharko dute enpresarengandik, adikzioei eta joko patologikoko esku-hartzeari buruzkoa”.

Hamalau. 32. artikulua 1. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“1. Honako hauek debeku dute jokoan parte hartzea, jokoan aritzea eta berariazko joko-establezimendu bezala baimenduta dauden areto eta tokietan sartzea:

a) Adingabeek. Adingabeek sarbidea debeku dutela adierazi beharko da lokaleko sarreran eta web-orriaren atarian, argi eta ongi ikusteko moduan.

b) Epailearen erabakiaz horrela ezarria edo gaitasuna aldatzeko ebazpenean horrela deklaratu duten pertsonak, eta zarrastelek edo konkurtso-prozeduran errudun deklaratuak izan direnak, birgaitzen ez diren bitartean.

c) Horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak agertzen dituen edozein pertsonak, edo armak eta halakotzat erabil daitezkeen objektuak daramatzala sartu nahi duenak.

d) Jokoratzeko Debekuen Erregistroan joko-uko egile diren pertsonak”.

Hamabost. 38. artikulua letra berri bat gehitzen zaio. Hona testua:

“q) Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko mota guztietako kirol-apustuen publizitatea jartzea kirolarien jantzietan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan, edozein motatako kirol-lehiaketan, -jarduera edo -gertakarietan, betiere entitateak Nafarroan badu egoitza soziala eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakaria toki eremuko edo autonomia erkidegoaren eremuko bada”.

Hamasei. 41. artikulua 3. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“3. Joko eta apustuak antolatzen edo ustiatzen dituzten enpresek har litzaketan erantzukizunak ezertan galarazi gabe, adingabeek eta dena delakoagatik halako jardueretarako sarbidea edo parte-hartzea debekatua duten pertsonak eran-

tzukizuna hartuko dute foru lege honen 40. artikuluan arin gisa tipifikaturiko arau-hauste bat egiteagatik”.

Hamazazpi. 43. artikulua apartatu berri bat erantsen zaio. Hona testua:

“4. Adingabeei zehapen arinak ezarri ordez, ahal dela, neurri hezitzaileak ezarriko zaizkie, hala nola gizarte eta hezkuntza lanak edo komunitatearentzako neurriak”.

Hemezortzi. Xedapen gehigarri bakarraren titulua aldatzen da. Hona testua:

“Lehen xedapen gehigarria. Genero edo efektu estankatuak”.

Hemeretzi. Xedapen gehigarri berri bat erantsen zaio, honako testuarekin:

“Bigarren xedapen gehigarria. Dirulaguntza publikoak.

Dena delako joko-modalitatean jarduten duten enpresek osoki nahiz partzialki babesturiko edo haien publizitatea daukaten kirol-jarduerak ez dira dirulaguntza publikoak eskatzeko moduan egon, eta halaber ezin izanen dute halako dirulaguntzarik lortu”.

Xedapen gehigarri bakarra. Fiskalitateari buruzko azterlana.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, arau honek indarra hartu eta 8 hilabeteko epean, azterlana egingen du Nafarroako Foru Komunitatean jokoak duen fiskalitateari buruz.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Nafarroan apustuak erregelamendu bidez garatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamenduzko garapena eguneratzea.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko erregelamenduzko garapen indardunak eguneratze aldera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu premiatzen da BAME lanpostuak hautatzeko sistema alda dezan.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernu premiatzen baita BAME lanpostuak hautatzeko sistema alda dezan (10-22/MOC-00054).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2022an barneko mediku egoiliarren 8.188 lanpostu esleitzeko prozesua izan da, eta amaitu da eskainitako lanpostu guztiak bete gabe. Hiru astetan BAME lanpostua eskuratzeko deialdira onartutako 9.932 izangaiek beren lehentasun-zerrendak aurkeztu dituzte eta haietan prestakuntzako 218 lanpostu huts geratu dira. Lanpostu horietatik gehienak, 218tik 200, familiako medikuntzakoak dira. Nafarroan 40 lanpostutik 5 bete gabe geratu dira, Osasun Ministerioaren datuen arabera.

Familiako medikuntza espezialitate kaltetuena da lanpostuen galera horretan; lanpostuen % 8,6 bete gabe geratu dira. Ziur aski, Oinarrizko Osa-

sun Laguntzako baliabide eskasiagatik eta horrekin batera dauden lan baldintzengatik.

Gaur egungo esleitzeko sistema konplexua da, modu telematikoan egiten da eta izangaiak behar izan diren ehunka lehentasuneko zerrendak egitera, dagokion txanda heldu arte eguneratu behar direnak. Kaos hori da lanpostuak bete gabe gertatzen diren arrazoi nagusietako bat. Interesgarria da gogoratzea izangaiak ez daudela behartuta lanpostua hautatzera eta, gainera, gutxieneko notak BAME azterketa gainditu zuten 900 pertsona inguru parte hartu ezinik utzi dituela.

Akats horietaz gain, hautatutako lanpostua modu efektiboan hartzearekin ikusiko dugu lanpostu gehiago hutsik geratzen ote den. 2020an 190 lanpostu hutsik geratu ziren izangaiek erabaki zutenean esleitu zitzaie lanpostura ez joatea. Era horretan, bete gabeko lanpostu guztien kopurua ezin da jakin BAMEak prestakuntza aldiari hasi arte, eta lanpostu horiek berreskuraz ezin bihurtzen dira.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du, BAME lanpostuak hautatzeko sistema alda dezan, ukitutako langileen ordezkariekin eta erkidegoekin beste eredu bat negoziatuz, azkarra, gardena eta medikuntzako espezialitate horietako lanpostuak galtzeko arriskua saihestuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du, berehalako konponbide bat ezar dezan BAME prestakuntzako lanpostuen galerarako. Konponbidean sartzen da bigarren erronda bat gaitzea kupoak ukitutako Europar Batasunaz kanpoko medikuntzako profesionalen artean esleitzeko txandan, eta BAME azterketako gutxieneko nota kentzea, ahalbidetzeko destinoa hautatzeko aukerarik gabe geratu diren 900 izan-

gai inguru horiek bete gabe geratu diren lanpostu horietara iristea.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du, BAME azterketa erkidegoetako hizkuntza koofizialetan garatu dezan, alegia, aukeratu ahal izatea BAME azterketa gaztelaniaz egitea edo erkidegoko berezko hizkuntzan.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du, lanpostuak gorde ditzan BAME prestakuntzako medikuntzako espezialitateetarako, hizkuntza koofiziala egoki ezagutzearen baldintzarekin.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ordezkariak sindikalariekin negoziazio prozesu bat abiaraz dezan, BAME prestakuntzako langileen soldata eta lan baldintzak hobetze aldera.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, NUPeko Medikuntzako Graduan unibertsitateko araudiak ahalbidetzen dituen euskarazko irakasgaiak/kredituak berma ditzan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da areagotu ditzan hizkuntzak jakitearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak eta Iruñeko zein Tuterako hizkuntza eskolak balioan jartzeko publizitate kanpainak.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita areagotu ditzan hizkuntzak jakitearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak eta Iruñeko zein Tuterako hizkuntza eskolak balioan jartzeko publizitate kanpainak (10-22/MOC-00055).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak iragarri du 2022/2023 ikasturterako talde asko murriztuko dituela egun Tuterako Hizkuntza Eskolak eskaintzen dituenetik. Hartan, aurreikusten du ingelesean 26 taldetik 22ra jaistea, frantsesean 8tik 6ra eta euskaraz zein alemanean 6tik 3ra. Azken bi hizkuntza horietan murrizketa bortitz horrek ezineko bihur dezake ikasleen ikasketen prozesuaren jarraipena, horretarako behar adina mailarik ez egoteagatik.

Murrizketa horren alde erabili den argudio nagusia, azken urteotan ikusitako matrikula jaitsiera, ez da arrazoia izan behar horrelako murrizketa latzak egiteko. Are gutxiago kontuan hartuta oraingo ikasturterako matrikula egiteko unean —2021eko iraila— oraindik ere pandemia gogor batean ginela, COVID-19aren ondorioz, eta horrek ziur aski eragina izan zuela jaitsieran.

Hainbat erakundek, besteak beste Tuterako Hizkuntza Eskolako zuzendaritzak berak, beren kezka aurkeztu dute, bi hizkuntza horien irakaskuntza galtzea eta besteena murriztea galarra garrantzitsua izanen litzatekeelako Erriberarako. Hortaz, aldeztu behar dugu eskaintza orokorra hobetzea, herritarren beharrez eta eskaeretara egokituz, eta inoiz ez murriztuz. Bide horretatik, Hezkuntza Departamentuak —Tuterako irakasle eta ikasleekin batera— aztertu behar du Erriberako herritarrei eskaintzen zaien irakaskuntzan alda-

ketak egiteko aukera (metodologia, asteko ordu kopurua eta abar), beti ere eskaintza hobetzeko helburuarekin.

Ildo horretatik, 2016-2019 aldirako Euskararen Lehen Plan Estrategikoak jasotzen duen moduan, aldeztu dugu "pixkanaka, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetako eskaintza eta toki kopurua handitzea eta egoera estrategikoa eta eskaria kontuan izanik, beste udalerrri batzuetan ematea hizkuntza eskolan matrikulatzeko aukera" Horretarako, Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialak eskaintza hobetzeko onuragarritzat jotzen dituen neurriez gain, egoki ikusten dugu Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren elkarlana bultzatzea. Ikastetxe horrek, 2019-2020 ikasturtetik, euskarazko oinarrizko prestakuntza eskaini du hainbat tokitan, esaterako, Tuteran, Cascanten, Corellan, Castejonan edo Cortesen, guztietan matrikula arrakastatsuekin, eta erakutsi du eskaintza publikoa herritarren eskarierara egokitzen denean (matrikulen prezioa, hurbiltasun fisikoa edo asteko ordu kopurua, besteak beste) nabarmen handitzen dela ikasleen interesa matrikulatzeko. Gainera, kontuan hartu behar dugu bi erakunde horien artean (Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa) lankidetzaren aldeko esperientzia, bi aldeei emaitza onuragarriak ekarri dizkiena.

Datu horiek erakusten duten moduan, Erriberako herritarren artean ez dira gutxi erantzun positiboak eman diotenak urteetan zehar hurbil eta haien beharrezanetara egokituta dagoen hezkuntza-eskaintza bati. Ikusgarri egin dute lingua navarrorum zein Europar Batasuneko hizkuntzak ikasteko interes bizi eta erreal bat, kontinente erabat eleanitz batean txertatutako erkidego elebidun batean. Erakunde publikoen eginkizuna da hezkuntza-eskaintza hori hobetzea, ez murriztea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, areagotu ditzan hizkuntzak jakitearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak, bai eta Iruñeko zein Tuterako hizkuntza eskolak balioan jartzeko publizitate kanpainak ere.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, 2022/2023 ikasturtean maila guztietan matrikulatzeko aukera gorde dezan, Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialean egun eskaintzen diren hizkuntza guztietan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, kontuan hartuta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialaren tamaina eta aukerak, bertan ekintza positiboko neurriak ezar ditzan, bazter uzteko matrikulazioko gutxienezko kopuru baten betebeharra modu zurrunean aplikatzea, halako moduz non, planteamendu pedagogiko zehurrerari jarraituz, ahalbidetuko den gisa bereko mailetan matrikulatutako ikasleak elkartzea, hizkuntza eskola horretan ikasi nahi dutenetatik inor bertatik kanpo gera ez dadin.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du, Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialaren eta Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren arteko koordinaziorako mekanismoak ezar ditzan, bultzatze aldera helduek euskara ikasteko eskaintza integral bat, haien beharrezan eta interes ezberdinei erantzunen diona.

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Eguna-ren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Torturaren Biktimei Babesa emateko Nazioarteko Eguna-ren ospakizunarekin” (10-22/DEC-00026).

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuak jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko ezarriko dituen neurriei buruzkoa (10-22/PES-00178).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Oso ezaguna denez, Nafarroako Gobernuak jaiegun berezitat jotzen ditu Eguberriko egunak bakarrik guardiak egiten dituzten langileentzat, lanpostuan egitekoak zein lokalizatuak izan, eta kanpoan geratzen dira jaiegun horietan errotazio-

txandetan lan egiten duten gainerako profesionalak.

Joan den abenduan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren, eta seigarren xedapen gehigarrian honako hau jasotzen dute:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2022. urtearen lehen seihilekoan negoziatuko dute Osasun Mahai Sektorialean, bertan dauden zentral sindikalekin, aipatu modulua jasotzearen ondorioetarako zeintzuk jo behar diren egun berezitat, bai eta jaiegun berezien izaera/modulua txanda arruntetan lan egiten duten langile guztiei hedatzea ere. 2021eko abenduan eta 2022ko urtarrilean, abenduaren 24a, 25a eta 31 eta urtarrilaren 1a, 5a eta 6a ordainduko dira, kontzeptu horren ordainsaria ekitaldi honetarik aurrera ematearren”.

Xedapen gehigarrian emandako epea amaitzeko hilabete bakarra gelditzen denez, jakin nahi genuke zer ekintza egin den jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betez.

Aurretik azaldutako guztiagatik, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari galdetzen diogu zer neurri ezarriko duen jaiegun berezien ordainketa txandaka lan egiten duten profesional guztiei hedatzeko, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00179).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurrekipean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Justizia Sistema Publikoaren elkarreragingarritasun (2) proiektuak 2023ko azken hiruhilekorako aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an.

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, datura bideratutako Justizia (3) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00180).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Datura bideratutako Justizia (3) proiektuak 2023ko azken hiruhilekorako aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00181).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Nafarroako Justizia Zerbitzuetan hobekuntza digitala jarraitu eta hedatzeko (4) proiektuak 2025eko hirugarren hiruhilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Justizia arloan komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00182).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurrekizpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Komunikazio elektronikoetarako eta langileriaren kudeaketarako sistema komuna hobetzeko (5) proiektuak 2025eko hirugarren hiruhilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Justizia arloan arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00183).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Arartekogabetasun digitala egonkortzeko (7) proiektuak 2025eko hirugarren hiruhilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genienerako data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00184).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Justizia Sistema Publikoan testualizazioa osorik garatzeko (8) proiektuak 2025eko hirugarren hiruhilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genienerako data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00185).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Erregistro Zibileko liburuak osorik digitalizatzeko (11) proiektuak 2025eko hirugarren hiruhilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuaren exekuziorako aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00186).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Gai judizialak, gordailuak eta konbikzio-piezak sistematizatzeko eta digitalizatzeko aplikazioa garatzea (13) proiektuak 2025eko hirugarren hiru-hilekora arte aurreikusitako exekuzioa jasotzen du.

1.- Hori Departamentuak exekuziorako duen aurreikuspena al da, ala araudiak jasotzen duen genieneko data?

2.- Departamentuaren beraren exekuziorako aurreikuspena ez bada, noizko gauzatu nahi da proiektu hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak exekuziorako denboraren aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako duen aurreikuspenari buruzkoa (10-22/PES-00187).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan egindako agerraldian, Next Generation funtsen finantzazioa duten justizia arloko proiektuei buruz informatzeko hartan, talde parlamentarioen eledunei eskainitako aurkezpenean guztira 18 proiektu aipatu zenituen.

Zer aurreikuspen du Departamentuak exekutatzeko aurreikuspen espresurik ez duten proiektu bakoitzaren exekuziorako?

Iruñean, 2022ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duen azterlan tekniko eta ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak 10-22/PES-00089 galdera idatzia egin du eraikin historikoetako inbertsioei buruz. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lehen galdera dela eta – “Kultura eta Kiroleko kontseilariak azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotzik al du, Vianako Andre Mariaren inbertsioa ondare publikoko beste jarduketa batzuen aurretik lehenestea justifikatzen duenik?”–

Dagoeneko PES_22_00088 galderaren erantzunean azaldu denez, Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak uste izan zuen Vianako Andre Maria elizako dorrea zaharberritzea zela jarduketa egokiena SEMetako C24.I2.P3.1 osagaiaren baldintzak betetzeko (“C24.I2.P3.1 - Autonomia erkidegoen, toki korporazioen eta titular pribatuen ondarearen gaineko jarduketak, Espainiako kultura ondarea zaharberritzeko eta haren balioa nabarmentzeko”).

Beraz, ez da interes kulturalako ondasun izendatutako beste inongo monumenturen aurretik lehenetsi.

Ondare Historikoaren Zerbitzua azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotz bat egiten ari da, eta horren emaitza jasoko da esku hartzeko proiektu batean, Vianako Andre Maria elizako dorrearen lehen faseko zaharberritze lanen beharretara lotu-

tako aurrekontuarekin. Proiektu horrekin eta aurrekontuarekin eginen dira kontratazio publikoaren deialdirako baldintza administratibo eta teknikoaren agiriak.

Bigarren galdera dela eta – “Kontsultarik egin al zaie tokiko administrazio publikoei zein diren beren titulartasuneko kultur ondarerako inbertsioaren beharrianak?”–

Toki administrazio publikoaren titulartasunekoak izan eta interes kulturalako ondasun izendatuta dauden higiezinak Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan identifikatzen dira; haien ezaugarriak Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioaren bidez eta udalen hirigintza-planen bidez ezagutzen dira. Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikarien bisita presentzialen bitartez ebaluatzen da esku-hartzearen beharrianak ondasun babestu horietan.

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 14ko 14/2005 Foru Legearen 5. artikulua (“Nafarroako toki entitateen eskumenak”) xedatzen duenez, Nafarroako toki entitateek eskumen hauek dituzte, Nafarroako kultur ondareari dagoeneko:

- a) Beren lurralde esparruan dauden kultur ondareko ondasunak kontserbatu eta babestea.
- b) Babeserako hirigintza-katalogoak prestatu eta kudeatzea eta haiek Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroarekin lotzea.
- c) Kautelazko neurriak hartzea eta nahitaezko desjabetzapena erabakitzea, garrantzi lokaleko ondasunak kontserbatu eta zaintzeko, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.
- d) Babeserako plan bereziak prestatu eta aplikatzea, hirigintzako legeriak ezarritakoaren arabera.
- e) Foru lege honek espresuki esleitzen dizkien gainerakoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Vianako Andre Maria eliza zaharberritze aldera Eliza Katolikoarekin hitzarmena egiteari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak 10-22/PES-00090 galdera idatzia egin du Vianako Andre Maria elizarekin sinatu beharreko hitzarmena iragartzeari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuo Kultur eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lehen galderari dagokionez – “Xede horretarako hitzarmenaren zirriborrorik ba al dago?”–

Batzorde Mistoak iragan apirilaren 1ean egin zuen bileran protokolo-proposamen bat aurkeztu zen, hitzarmenean jaso beharko diren baldintzak azaltzen dituen. Protokolo hori PEI 150 informazio-eskaeraren erantzunari erantsi zaio. (Hitzarmena idazteko protokoloa, 1. eranskina)

Bigarren galderari erantzunez – “Zein izan dira Departamentuaren hasierako baldintzak, irizpideak eta lehentasunak?”

Hitzarmena idazteko protokoloan egiaztatzen ahal da hamabi klausula ezarri direla Vianako Andre Maria elizako dorrea zaharberritzeko obrak Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzaren artean finantzatzeko.

Eta hirugarren galderari erantzunez – “Zer implikazio eduki du bertan Ondare Historikoaren Atalak?”–

Ondare Historikoaren Zerbitzuko eta Ondare Historikoaren Ataleko titularrek Batzorde Mistoan parte hartzen dute Kultura eta Kirol Departamentuko, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko eta Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko titularrekin batera.

Ildo horretan, Ondare Historikoaren Zerbitzua hitzarmena idazteko protokoloaren ezarpenean aritu da, batez ere alderdi teknikoari eta jarraipen batzorde teknikoaren sorrerari dagozkien puntuetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Vianako Andre Maria elizako plano bereziak egiteari buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak 10-22/PES-00091 galdera idatzia egin du Vianako Andre Maria elizari buruz. Hau da Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lehen galderari dagokionez –“Plano bereziak” egin ziren data”–

Vianako Andre Maria elizaren planoak tramitazio arrunteko kontratu publikoaren bidez enkargatu ziren. Prozedura 2016ko martxoan hasi zen,

eta kontratua Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 156/2016 Ebazpenaren bidez adjudikatu zen. Beraz, ez da plano berezirik egin tramitazioaren aldetik, baizik eta kalitatearen aldetik; alegia, “kalitate bereziko planoak” egin dira.

Bigarren galderari erantzunez –“Aipatu planoak egiteko erabakia hartu zuen organoa”–

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak onetsi zuen planoak egiteko kontratazioa, maiatzaren 26ko 156/2016 Ebazpenaren bidez.

Eta hirugarren galderari erantzunez –“Aipatu planoetan oinarritutako obren betetze mailaren definizioa”–

Orain arte ez da inolako obrarik egin Vianako Andre Maria elizan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo